

Pedro Agiriano Urrutia

*Arrasate
Gipuzkoa (1932)*

Aurkibidea

Biografia



Arrasateko Musakola auzoko Altzibar baserrian jaio zen 1932an. Baserritik bizi izan da beti. Eskola nazionaletan eta gau-eskolan ibili zen ikasten eta horren ondoren San Viatorrera joan zen sarrailagintza ikastera aprendiz modura. San Viatorrekoa amaitu zuenean, osabaren almazenean mandatari lanetan aritu zen. Gerra garaian etxetik ihes egin eta San Prudentzioko Isasin egon zen lau hilabetez.

Zintak

ARR-026

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Navarro, Monika
- **Data:** 1996-01-01
- **Iraupena:** 32 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

ARR-053

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa - Otegi, Aitziber
- **Data:** 2009-02-17
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Arrasate askoz txikiagoa ezagutu zuen

- **Erref:** ARR-053/002
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:02:14. **Bukatu:** 00:04:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserría » Baserríko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

<p>Esnea kalean saltzen zuten. Zigarrola aldea handitu zenean, kalera gutxiago joaten ziren. Bera mutikoa zenean bizpahiru etxe eta lantegiren bat besterik ez zeuden Zigarrolatik Arrasate barreneraino. Pedro umea zenerako Zerrajera martxan zegoen. Pedro 1947. urtean sartu zen Zerrajeran, 3.554 langile zenbakiarekin. Kooperatibak 1955 urte inguruan sortuko ziren.</p>

Transkripzioa

-Esnie eta erueten zeuen kalera?
-Ba hooombre! Ha zan ba gure zeroi. [...] porruek eta. Zigarrolako andrai.
-A, Zigarrolako andrai? Ez ziñan faten kaleraíño?
-Kaleraíño? Ez.
-Kaleraíño ez?
-Gure aman denporan bai, baiñe gero hau puxkat haundittu zanién, ez gitzen faten ez. Hau puxkat haundittu zanién, ez gitzen faten.
-Eta Zigarrolan ze euen azokia? Edo etxerik etxe ibiltten ziñan?
-Hor ibiltten zien horreik e, andra bi edo hiru edo, lau edo. Bai, hemen jente asko dau. Hemen lehenau be, ni mutiko denporan, urten hemendik eta Mondrauen, Maala esaten jakon barreneraiño, ez auen etxe bat be. Ba horixe, "Casa hierro", gero Bidekurtze edo esaten jakona beste bat, ta ba

akabo. Fabrika bat edo bi, Elma ta holako batzuk eta... ez auen, kaleraño ezer be ez auen.

-Ta hor zerria ta noiz ipiñi euen, Zerrajerakuek?

-Ba ni nire... akordua baiño lehenau, e. Bai. Nik ez dakit /eztaitt/, horrek liburua leirute dauket, baiñe ez dutsut esango seguro. Hori ba Zerrajerie fundau zani-en-edo izengo zan horreik.

-Ia, oseake zu umia ziñerako Zerrajeria ia martxan euen?

-Hombre! Zerrajerie ez dakit ze urtetan fundauko zan, baiñe nik e... sartu nitzen Zerrajeran "En el año mil novecientas cuarenta y siete" ta eitten nauen "tres mil quinientos cincuenta y cuatro" numerua.

-Langille numerua?

-Bai.

-Baiña ta danok ez ziñain ibilliko?

-Baaa batzuk hildde egongo zien! Bueno, gero Zerrajerie bakarrik ez zan! Zerrajerie, Roneo, Altos Hornos, Olate Oñetikue be Zerrajeriena zan.

-Bai, bai.

-Ta ba hor e...

-Oseake oingo kooperatibak baiño jente gehixau ixa!

-Eske orduen koperatibarik ez auen e! Koperatibie fundauko zan "en el año mil novecientos cincuenta y cinco" edo holako bat? Ni soldauskatik etorri ta gero. Bai.

2. Zerrajerako "aprendiz" eskola

- **Erref:** ARR-053/003
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:04:10. **Bukatu:** 00:06:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza

Laburpena:

<p>Zerrajerako "aprendiz" eskolan ikasi zuen Pedrok. Eskola honetan prestatutako langile asko Fagorrera joan ziren, hau sortu zenean. 13 bat urterekin hasi zen "aprendiz". 15 urterekin Zerrajerako biltegian hasi zen lanean.</p>

Transkripzioa

-Orduen Zerrajerie zan hemen, bueno, "la base" esaten jakona. Bai. Gero eskola aprendize be han auen. Nik eskolatik urten ta bi urte in nittuen eskola aprendizetan ta orduen auen Zerrajeran tornerue, ta ajustadorie, ta elektrizistie ta holan e, barkuek kargetako beste. Ta ez eukien estimaziñoik. Gero Fagor fundau zani-en, ba, horreik danok fan zien harutze. Ta orduen geratu zan ez ajustadore, ta ez tornero, ta ezebe barek.

-Orduen ze, Zerrajeran asto lana bakarrik estimaitten euen?

-Aurretik?

-Bai.

-Ba, asto lana be asko. Asto lana be...

-Esan dozu teknikuek eta danak hanka ein eueilla...

-Ba horixe ba.

-... Fagorrera.

-Bai gero e, abitzenak hola e tornelleixan edo, beste leku baten ipiñi zittuen kursilluek, gure baauen ajustadore ein, edo gure baauen tornero ein, elektrizista ein, edo eta... [Hortaittik] urten auen mordo batek, ta gero

ba praktikiaz ba puxka bat jarri ein zien, baiña haik, lelengoko haik, esaten zienak tornero-tornero, ta ajustadore-ajustadore, ta haik danak, onen danak, Fagorrera fan zien. Bai.

-Ez euen ondo pagaitten Zerrajeran?

-Bueno, ha ipinttie Zerrajerako obreruek ez auen galdu be ez ein, ze jentia hara fan ez zain, puxkat jaso ein zittuen jornalak. Ta... nik neuk be euki nauen Fagorrera fateko okasiñue, baiñe ez nitzen fan. Neuk e... lelengo bi urte ein nittuen eskola aprendizetan, ta gero, tio bat abillen almagazenen, ta harako mutiko bi edo mutikote bi biher ziela, ta etorri zan hona ta aitte ta ama konbenziru zittuen ta fan nitzen almagazenera.

-Zenbat urtekin?

-Ze sartuko nitzen aprendizetan, hamahirutik hamalaure edo? Ta fango nintzen hara, ba, hamabost inguruen edo. "En el año cuarenta y siete" edo holako bat.

3. Fraide-eskolatik aprendizetara

- **Erref:** ARR-053/004
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:06:05. **Bukatu:** 00:09:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza

Laburpena:

Aurretik Zigarrolako eskolan ibilita zegoen. Baina "aprendizetan" hasteko, aurretik San Viatorreko eskolatik pasatu beharra zegoen, eta hemen urte pare bat egin zituen. 1990. urtera arte egin zuen lan Zerrajeran Pedrok. Zerrajera lantegiak bi kilometroko luzera hartzen zuen, behetik gora. Hiru ur-iturri natural zeuden lantegi barnean.

4. Lehengo eskolak eta gau-eskolak

- **Erref:** ARR-053/005
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:09:18. **Bukatu:** 00:11:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Eskolan euskara ez zen libre. Etxera joan aurretik Cara al Sol abesten zuten. Etxean lana zegoenean ez zen eskolara joaten. Neska-mutilak elkarrekin ikasten zuten, zazpi urtetatik 14 urte artekoek, 30 lagunetik gora elkarrekin. Beranduago banatu zituzten neskak eta mutilak. Gau-eskolan ere ibilitakoa da Pedro, egunez ezin zenean joan. "Don Fulgencio" maisua gogoratzen du.</p>

5. Eskolako zigorrak

- **Erref:** ARR-053/006
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:14:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

<p>Irakurri, idazten eta oinarrizko kontuak ikasita bukatzen zuten orduko ikasketa 'karrera'. San Viatorreko eskola ordaindu egiten zen; erdia Zerrajerak ordaintzen zuela. "Bachiller" ikastera aberatsak bakarrik joaten ziren. Hango maisuak ez ziren denak oso onak. "Perrochato" izeneko maisu bat gogoratzen du. Paretan beso-zabalik, kontu asko egin eragin edota jo ere egiten zituzten zigortuta zeudenean. Jotzeko makila baserriar ikasleak eramaten zuten. Maistra, Elisa Lasa, ona bezain gogorra omen zen.</p>

6. Aprestuzen eskola

- **Erref:** ARR-053/007
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:14:14. **Bukatu:** 00:16:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

<p>Eskola bukatzen zenean, arratsaldeko bostetan, denak formatuta abesten zuten Cara al Sol. Eskolan ez zuten asko errezatzen, baina dotrina asko ikasten zuten. Gero prestuzetan, eskola eta tailerra ikasten zuten lehenengo urtean. Bigarrenetan norberak aukeratutako lanbiderako prestatzen ziren. Hiru fraidek eskolak eman eta bertako ofizialak ziren tailerra irakasten zutenak. Eskola Profesionala bazegoen ordurako, baina Zerrajeratik aparte.</p>

7. Zerrajerako biltegiaren eta baserriaren lanean

- **Erref:** ARR-053/008
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:16:47. **Bukatu:** 00:18:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Altxairugintza

Laburpena:

Baina prestuzetako lau urteak eginda, ez zeuden prestatutako langile guztientzako lan-posturik Zerrajeran. Maisu eta prestuz asko Fagorrera joan ziren gero. Pedro Zerrajerako biltegiaren geratu zen, jubilatutako arte. Baina

bitartean, gurasoekin eta osaba baten laguntasunarekin, Pedrok baserria ere aurrera atera zuen.

8. Kaletik tripa-truke lanera etorritakoak

- **Erref:** ARR-053/009
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:18:57. **Bukatu:** 00:21:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Gerraostean kaletik jende asko etortzen zen lanera baserrietara, tripa-truke. 18 lagunera izan ziren orduan garia ebakitzeko (eta etxeokak 2-3 besterik ez ziren izaten). 1942etik ia 1950rainoko urteetan, egoera beltzak ezagutu zituzten. Garia ehotzera gauz eta mendiz joan behar izaten ziren, errotak prezintatuta egon zirenean. Garai haietan artoa jaten zuten ogia beste .</p>

Transkripzioa

- Ta orduen bertan basarrietan be oin baiño laguntasun gehixao bata bestiari eitten akon. Ta gero, ba, kaleko jentie "hambre" auen, erderaz, ta tripa truke etorten zan edozein.
- Lanera?
- Lanera.
- Hori gerra osteko zerian?
- Bai. Ni akordetan naz gari soluen gurien hartzen zien hogeta hamar hamabost, berrogei bat anega gari hartzen zien. Ta egun baten hasi gari solue goixien ta gabien akabauta itxi. Lotute ta dana eindde. Baiña hamazortzi lagun gari ebaitten igetaixakin.
- Karo, ta hamazortzi lagun etxeokak ez zien.
- Ba, etxekuek, ba, bi edo hiru edo. Bai.
- Ta bestiak tripa truke...
- Tripa truk.
- Lanera etorritakuak.
- Tripa truk, eta gero, ba, baba apurren bat edo zeoze emongo otsen [...] ta beti preguntie aber lanik agon. Lanik ez, tripie, tripie.
- Gorrixak orduen, e?
- Ez, zera! Haik cuarentaidosetik gero ez noia esaten cincuentaraiño baiña hor urte batzuk baltzak egon zien, e? Baltzak, e? [Gu akordatzen], frailietara eskolara faten nitzenien ta aman aizta bat han Erdiko Kalien bizi zan, kale-kalien ta, ba, handik hona tiradie oinez etorteko ta berak emungo eskula bazkaitten lentejie edo babie edo zeozer ipiniko auela ta baiña ogixe eruteko hamendik, egixe eruteko. Bai. Ta guk geuk hemen basarrixan goserik ez gauen pasau.[Betik eoten zan] txarrixo edo oillue edo... Ogixe be, errotak eta prezintauta egon zien danak baiñe hor aitten arreba baten gizona zan errotako, hor, Epelerrota edo esaten akona, ta guardia zibillek egoten zien egunez ta gabez eruen zorrue ta ixon ta basotik bueltan ekarri ta /ekarri'tte/, hor gorde ta ogixe ein ta /ein'dde/.
- Garai bateko basarritar danak ibili ziñein igual, e?
- Bai, bai.

- Asi ke, etxen ogie eitten zendun.
- Bai, bai eitten auen ama difuntiek, ogixa eitten auen ta artua be bai. Ta ba nik ez dakit, lehenengo akordetan naz astero eitten auela labako sue. Hemen auen labie ta hor holako eromahai zahar haundi bat, ta han eitten auen, ez dakit zortzi-hamar bat ogi edo ze eingo [zittuen]. Gero esan dotena, bata ta bestie etorri eitten zien lanera ta harentzako ogixa jatie zan loterixie urtetie. Bai, ta gero hasi zan, gogortu eitten zan behin zortzi egunera ezkeru, asko basarriko ogixa ta gero ez dakit nunbaitetik enterau zan patatie egositte sartute gehixau konserbaitten zala ta. Ta gero artue, artue jaten zan, bueno. Artuek eingo zittuen ogixak beste arto eingo zittuen.

9. Kupoarekin tranpak

- **Erref:** ARR-053/010
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:21:34. **Bukatu:** 00:23:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Gariaren kupoa ordaintzerakoan, behin aitak zorroak urarekin busti zituen, gehiago pisatu zezaten. Den-denarekin itzuli behar izan zen Pedro etxera gurdiarekin. Ia ekoizpenaren erdia entregatu behar izaten zuten. Eguneroko gosaria artoa, taloa edo morokila esnearekin izaten zen.</p>

Transkripzioa

- Ogixa beste arto ingo zittuen.
- Eta ordainketan zauein zera, gerra osteko, basarritar danak garixa ta [...]
- Eruen eraitten oskuen, bai, Arrasatera. Hoixe, biheko pagau... Akordetan naz behin, txarri zikiñok, gure aitte difuntuak ure bota utsen zakueri, harako preparau zittuen zakuok eta pixatu deixen gehixau ta neu fan nintzen entregetan ganauokin ta...
- Ura zeuek botata?
- Bai, pixatu deixen gehixao garixek ta ostera bueltan danak etxera.
- Ze, garixa hondatuta igual.
- E? Ostera sikue eruteko ordenie. Bai ta pagetan auen miserixa bat. Miserixa bat. Han [Arrasateko] esaten akona, bai.
- Ta ze eruan bihar izaten zauen, jasotzen zauein dana edo zati bat edo...
- Deklaraziño bat edo eingo zan, ni ez naiz horrekin ondo akordetan baiña pentzatzan dot deklarauko zala ta handik ba porziento bat. Bai, bastante! Erdixe ez zan eruengo baiña zati haundixe, zati haundixe. Ni akordetan naz iguel xei bat zaku edo, hor berrogeta hamar kilo edo hirurogei kilo ingurukuek. Bai. Neu fanda nao ganauekin ta zerakin erueten.
- Eta ez bakarrik garixa, arto ta...
- Ez, artuekin ez naz akordetan, garixe. Ta patatie be nik pentzetan dot hartu, hartu eitten zala baiña gero gordeta etxien euki biher izeten zan ta holako istorixa batzuk euzen. Bai.
- Ta rasionamentua izango zan ordun, ez?
- Rasionamentue ogixana. Ogixe ez, holako, holako zer bat, boillo bat...
- Baiña ez zauen...
- Ha baiña hoberik gaur txakurrari emon ta ez dau jaten. Ha, bueno, ha

menos ogixe edozer gauza zan, e? Bueno! Ta gero, ba, artue, artue ona itten zan ta goixetan jeneralien jaiki ta artue ta esnie, talue ta esnie, morokille be bai. Artue ta esnie nik gustora jaten nauen ta talue be laztxuauae baiña bueno, baiña morokille ez jaten sartzen. Morokille, pof! Nik oin be hemen badakitzu ze afan egoten dan talue ta jaixe ta... Bo, nik talue ikusten dotenien apartau itten naz.

- Lehenao nahikoa einda ia.

- Bueno.

- Nik gustora jaten dot ba. Igual izango da txikittan ez [dotelako jan].

- Ez, egunero jak! Nik sarri esaten dot nik beste jan [baleukie] ez zittuen hola jarriko.

- Eta estraperlorik itten zan hemen?

10. Estraperloa Arabatik

- **Erref:** ARR-053/011
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:23:52. **Bukatu:** 00:27:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Irina eta patata ekartzen zuten estraperloan Arabatik. Patata-zorroak trenetik bota etxe inguruan, eta gaeuz astoarekin jasotzen zituzten. Aitak Arabatik astoarekin ekartzen zuen irina.</p>

11. Guarda zibilekin harremanak

- **Erref:** ARR-053/012
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:27:01. **Bukatu:** 00:30:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Ez zituzten inoiz guardia zibilak harrapatu estraperloan. Guarda zibilekin izandako pasadizoak kontatzen digu Pedrok.

12. Gerran etxetik Bergarara ihesi

- **Erref:** ARR-053/013
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:30:51. **Bukatu:** 00:33:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Gerra denboran, Francoren aldekoak etxera etorri eta hurrengo goizeko zortzietarako etxea uzteko agindu zieten. Ganadu eta guzti Bergarako Isasizabal baserrian egon ziren lau hilabetez. Ganadua goseak zegoen, baina ezin zuten Bergaratik Arrasatera etorri. Etxeko arbi guztia Francoren aldekoak ostu zioten.

13. Bidegintzan auzolanean

- **Erref:** ARR-053/014
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:33:47. **Bukatu:** 00:36:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Etxera itzuli zirenean, etxea oso hondatuta zegoen. Gurdientzako ziren orduko bideak, eta lehenengo GMC kamioientzako bidea, aitzurrez eta palaz, 50eko hamarkadan egin zuten, auzolanean. 1989. urtean, etxeraino bide ona egiteko 700.000 pezeta ordaindu zituen Pedrok.</p>

14. Lehengo prezioak eta jornalak

- **Erref:** ARR-053/016
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:38:05. **Bukatu:** 00:41:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Gerran, Bergaratik itzuli zirenean, etxeko ganbaran zegoen artoa ez ezik, beste guztia eraman zutela ikusi zuten. 1926. urtean, baserria erosteko, 25.000 pezeta ordaindu zuen aitak. Zerrajeraren hasieran, Pedrok 74.50 pezetako jorنالa zuen asteko. Zapatuetan jasotzen zuten jorنالa, bakoitzak bere langile-zenbakidun potean. 70 pezeta amarentzat izaten ziren, eta 4.50 berarentzat.

15. Mutikotako jolasak

- **Erref:** ARR-053/017
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:41:16. **Bukatu:** 00:43:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Errepidean jolasten zuten futboleko igandetan; arratsalde osoan kotxe bakar bat ere ez zen pasatzen. Uda partean errekan egiten zuten jolas asko. Txorro-morroka, 10-20ra, kui-kuika, txirikilletan edo pote-poteka ere jolasten zuten. Udaberrian txori kaiolak topetan ibiltzen ziren.

16. Bizikletaz inguruko herrietara

- **Erref:** ARR-053/018
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:43:42. **Bukatu:** 00:46:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Baserritarrak kaletarrakin ez ziren ondo konpontzen, burlak eta borrokak izaten ziren. Asteburuetan lan egiten zen. Igandean goizeko seietako meza entzun, gosalduek eta ganadua zaintzera joan behar. Santa Agedan eta San Prudentzian erromeria handiak egiten ziren. San Prudentzioko taberna eta bola-lekua ditu gogoan. Angiozarrera eta Oñate atira ere joaten ziren, euren bizikleta zaharrekin.</p>

17. Auzoko jaiak antolatzeko, mutilek bosna ogerleko

- **Erref:** ARR-053/020
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:48:07. **Bukatu:** 00:51:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

<p>San Isidroan ospatzen dituzte auzoko jaiak. Bergarako San Martzialan aguazilak soinu-jotzailea jo zuenekoan kontatzen digu Pedrok. Erromerietan dantza egiteagatik pezeta bi ordaintzen zuten mutilek. Auzoko jaiak antolatzeko mutil bakoitzak bost ogerleko ematen zituen. Felix itsua soinu-jotzailea ekarri zuten urte askoetan. Bertsolari onak Arrasateko Santo Tomasetan egoten ziren.</p>

18. Inguruetakoa ferietara joaten ziren

- **Erref:** ARR-053/021
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:51:20. **Bukatu:** 00:53:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

<p>Feria handiak egiten ziren orduan. Santamasetan Arrasaten, Santixauetan Gasteizen, Erramu Zapatu egunean Bergaran, Santa Lutziatan Zumarragara oinez, kuadrillan, joaten ziren behorrek edota astoak saltzera.</p>

19. Bizikletak, motorrak eta gidabaimena

- **Erref:** ARR-053/022
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:53:11. **Bukatu:** 00:56:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Eurek eginiko bizikletatan ibiltzen ziren. Lehenengo erosi zuen bizikleta Eibarko Orbea lantegitik ekarri zuen. 27 kilo zituen bizikletak. Beranduago GS motortxo bat eta Lanbretta bat izan zituen. Oraindik ere Vespa zahar batekin ibiltzen da. Gidabaimena, 500 pezeta ordainduta eta azterketarako bere motorra berak kamioiez bidalita, atera zuen Gasteizen.

20. Traktorez zein motorrez bai; kotxez ez

- **Erref:** ARR-053/023
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:56:26. **Bukatu:** 00:57:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Traktorearen gidabaimena ateratzeko Beasaingo Salbatorera eraman behar zen traktorea, norberaren kontura. Horretarako kotxeiko gidabaimena atera zuen, nahiz eta sekula kotxerik erabili ez. Motorrez ibiltzen da, kotxez ibiltzeak beldurra ematen dio-eta.

21. Eztei-bidaian Madrilera

- **Erref:** ARR-053/024
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:57:30. **Bukatu:** 01:00:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Bost seme-alaba izan dituzte. Arrasaten ezkondu ziren. Madrilen hotelera sartzeko "libro de familia" eskatzen zuten. Ordubetean iritsi ziren Madrilera hegazkinez, baina "El R´pido" trenean itzuli ziren, eta ia egun oso bat eman zuten bidaian.</p>

Transkripzioa

- Zenbat ume hazi dittuzue?
- Bost. Bat hil in jaten, oin lau. Hiru neska ta seme bat. Alabie zerien dabil, Oñatin, palillosenien.
- Koiño.

- Han bizi da, Oñatin bizi da, gaztiena. Ta beste bat hor zerien dabillena, Axun, hau zelan da? Hau liburutegixen edo?

- Bai, liburutegixen [...].

- Ta gero beste bat eta semie, [Sugian] dabiz, Altunanien. Bai.

- Ta orduko ezkontzak nolako izaten zien?

- Ba, nik ez dakit ezkontzak...

- Banketek eta eitten zien...

- Zeuek nun ezkondu ziñein?

- Mondraon.

- Mondraon kalia?

- Parrokixan bai.

- Hamen ez zeuen, mezaik ez zeuen emuten?

- Ez, hori da Aramaixokue ta hor Mondrauen aon krieda edo neskame edo ta hor zertu gitzen. Ta gero libro familiarra ta ez dakit zer ta faten zitzen, Madrillera fan gitzen gu ta lehenengo libro familiarra eskaketan otsuen, bestela ez otsuen habitaziñoik emoten ezkondata zeuezeneko gauzek eitteko. Oingo moduen ez, edozein hartute fan ta...

- A, hori zan ezkonduen karneta?

- Bai. Bai.

- Nora ein zeuen biäjori?

- Lehenengo Bilbon in gittun egun bat edo bi edo ta gero abioien Madrillera. Bai, ta Madrillen zortzi-hamar egun ez dakit ze egin gittun ta...

- Lehenengo aldiz abioian ibiltzen ziñala?

- Lehenengo ta azkenengo hoixe naz ibilitta. Gero handik Donostiara. Abioien urten bostetan Bilbon ta xeietako Madrident. Ta auen denpora bat... bueno! Zoragarrixen. Han fan biha gauen hotelera taxista batek eruen oskun maletok eta gauzok eta hurrengo goixien jaiki gitzenien eurixe! Bota ahala guztien! Guk ez dakit zortzi-hamar bat egun ein gittun Madrident eta egun bat ez zauen pasau euririk in barik. Ta eurixa itten aben baiña gero ostera segiduen zertu eitten auen, jaso itten auen ta euzkixe iguel. Maietza zan. "Veintisiete de Mayo" ezkondu giñen. Ta gero han zertu gitzen ta beste lagun bat be, bi pareja fan giñen hemendik Mondrauetik eta harek andria auken Valladolidkue ta gure eban Valladolidera etortie ta trenien. "El rápido" esaten otsien tren horri. Urten gauen Madrident, ez dakit ze ordutan urten gauen, egun dana baiño gehixau ein gauen trenien Donostiara etorten. Bai. "El rápido".

- Ordun zibillezko ezkontzaik eta izaten zan?

- Ez.

- Ez, ez? Ez zan izaten.

- Ta zuek ezkondu ziñaiñien, banketia edo eitten zan?

- Bai.

22. Ohiturak: Ezkontza, lutoa...

- **Erref:** ARR-053/025
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 01:00:02. **Bukatu:** 01:02:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Ezkontza egunean familia arteko banketea izan zuten, Arrasateko Toki

Ona jatetxean. Trajea janztea derrigorrezkoa zen ezkontza egunean. Bere ezkontzako trajea semeak apurtu omen zuen Maritxu Kajoi jai batean. Gurasoetakoren bat hiltzen bazen, lutoa bi urtez eramaten zen. Beste senitartekoren bat bazen hildakoa, luto-erdia izaten zen.</p>

Transkripzioa

- Ez.
- Ez, ez? Ez zan izaten.
- Ta zuek ezkondu ziñaiñien, banketia edo eitten zan?
- Bai, bai, bai, bai. Eruten zien etxekuek danak ta gero tia-tiuek be danak, ta ba hortik aparte gauza haundirik ez. Gu juntauko giñen hirurogetaka lagunek. Mondrauen, orduen jatetxiek oso onak auzen. Toki Ona esaten akona, ta guk Toki Onan euki gauen, ta gero aurreratxuauen Mendikutena ta Urizar be orduaintxe sartu zan ta, bai. Jatetxiek onak auzen.
- Eta trajea? Zuriz ezkontzen zan neska ala beltzez?
- Horri preguntaiozu, ez dakit nik. Nik behintzat trajie derrigorrekua zan ezkonketako.
- Baiña gero modan egon zan zuriz ezkonketia.
- Baiñe...
- Orduan zer zan beltzez?
- Ez dakit nik zuriz ta ni, horrek berorrek daki nik baiño hobeto. Horrek holako soiñeko bat erun auen ez dakit nik armaixuan ez dan eongo. Ta ni, trajie, mutikuek apurtu auen zerien, Mari Kajoi edo holako...
- Harek akabera ona euki eben orduen.
- Bai, harek emun utsen azkenoi. Trajie jantziko naberen ezkonketako. Gero akordetan naz ezkondu harekin trajiekin ta gero beste batekin fan nintzen Madrilera ta gero akaso entierroren baten edo jantziko naberen baiña akabo. Nik ha trajie gehixao ez naberen jantzi. Bai.
- Eta lutua?
- A lutua, bueno, hori beste historixa bat zan. Lutua ama edo aitte edo familixako bat hil ezkeru, baltzez jantzitta ibili biher lehenengo urte bixen edo ez dakit zenbat denporan.
- Bi urte?
- Bi urte uste dot izeten zala.
- Urte bixan baltzez, e? Lutua?
- Bai, bai.
- Bi urte gurasuak bazien hiltzen zienak.
- Bai.
- Eta beste senitartekon bat baldin bazan?
- Mediolutue edo holako zeoze esaten akon. Gero orduen auzen gabardina haundi batzuk eurixa danerako ta, ta holako brazoleta haundi bat ipintten akon baltza besuan.
- Norbait hiltzen zatzulako, esateko.
- Bai, bai. Bai. Orduen... Orduen, bueno, oin be hilttie hilttie da ta bakotxak bere lekuetan pena hartuko dau baiña orduen nik pentzeten dot persona bat hiltten zaniñen familixa dana gaixotu eitten zala. Bai, ta gero erreziek ta ez dakit zer ta badakit zer.
- Osea ke errosarioa egunero errezatzen zendun etxen? Errosarioa, egunero.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com